**Eskola Txikien Festak 25 urte betetzen ditu.**
**Doinua:** *"Eguzkiak urtzen du goian"*

Eguzkiak arnastu ahala
egunsentiko aidea
pauso txikitan egiten dugu
eskolarako bidea.
Herri bizitzak, plaza giroak,
eskola du zutabea
zein den luzea mende laurdena
jolas soinurik gabea.
Desberdinen artean eraikiz
jakintza ta ondarea
herriz herri eta auzoz auzo
har dezagun adorea
*"bakoitzak berea urratuaz*
*denon artean geurea"*
bizirauteko indarra dugu
geronen baitan gordea.

*Jexux Mari Irazu Muñoa*